

Rosario Alcerreca Azconaga

*Eibar, Gipuzkoa
(1911-2006)*

Aurkibidea

Biografia



1911. urtean jaioakoa, Muzategi kalean. Alhondigara joan zen lehenengo ikasketak egitera eta Dña Paca izan zuen irakasle.

Zintak

AB-141

- **Proiektua:** Egoibarra - Eibartarren Ahotan
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Data:** 1999-11-02
- **Iraupena:** 94 min
- **Euskarria:** Hi8
- **Kodifikatzailea:** Gisasola, Jaione

AB-625

- **Proiektua:** Egoibarra - Eibartarren Ahotan
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sangroniz, Mikel
- **Data:** 2000-02-08
- **Iraupena:** -
- **Euskarria:** Audio Analog

Pasarteak

1. Jaunartze txikia eta handia

- **Erref:** AB-141/002
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:01:54. **Bukatu:** 00:03:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Sakramentuak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Dotrina

Laburpena:

<p>Jaunartze txikia eta handia egiten zirela azaltzen du Rosariok. Lehenengoa, 7 urterekin. Handia, 11 urterekin. Orduan bai dotore jantzita, dotrina ere hobeto ikasita joaten ziren. Sakristiara joaten ziren dotrina ikastera, euskaraz eta erdaraz. Abadea, on Juan. Abizen euskalduna zuenari dotrina euskaraz ematen zion.</p>

2. Eskolan erdaraz

- **Erref:** AB-141/003
- **Iraupena:** 0:00:35. **Hasi:** 00:03:19. **Bukatu:** 00:03:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Eskolan dena erdaraz ikasten zuten. Euskararen erabileraren inguruan hitz egiten du.

3. Muzategi kalea eta inguruak nolakoak ziren

- **Erref:** AB-141/004
- **Iraupena:** 0:03:13. **Hasi:** 00:03:54. **Bukatu:** 00:07:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak

Laburpena:

Eibarko kaleak. Muzategi kalea zelakoa zen. Aldapatxo eta Muzategi. "Jardín de Convalecientes". Niceto Muguruzaren estatua. Pagei kalera eta Matsarira joaten zen bertatik.</p>

4. Eibarko kaleak; bolatokiak

- **Erref:** AB-141/006
- **Iraupena:** 0:02:28. **Hasi:** 00:09:27. **Bukatu:** 00:11:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak

Laburpena:

Eibarko kaleak. El Casco dagoen tokian etxe handi bat zegoen, baserri modukoa, arku handi batekin. Amama han bizi zen. Matsarian latsarri zoragarria zegoen. Etxe bat ere bazegoen. Matsarian eta Azitainen, bolatokiak. Gaur egun oso desberdin dago inguru hori. Alemanaren tailerra. Erreka.

5. Umetan, erreka edo hondartzara

- **Erref:** AB-141/007
- **Iraupena:** 0:01:52. **Hasi:** 00:11:55. **Bukatu:** 00:13:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Hondartza
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Bainuak, erreka eta uretako jolasak

Laburpena:

Umetan, erreka edo hondartzara joaten ziren igeri egitera. Amañan eta Txontan presak zeuden, umeak igerian ikasteko. Mutilak gehienbat Amañako presara joaten ziren; neskak Debara, hondartzara (batzuetan meriendarekin, eguna pasatzera).

6. Hondartzara umetan

- **Erref:** AB-141/008
- **Iraupena:** 0:01:19. **Hasi:** 00:13:47. **Bukatu:** 00:15:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Hondartza

Laburpena:

Hondartzara umetan. Debara trenez joaten ziren. Cacho-reneko autobus deskapotableak. Mutilek tranpa txikiak egiten zituzten treneko bidaia ez ordaintzeko.</p>

7. Untzagan musika eta dantza

- **Erref:** AB-141/009
- **Iraupena:** 0:03:17. **Hasi:** 00:15:06. **Bukatu:** 00:18:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:

<p>Untzagan dantzaldia egoten zen. 3 talde egoten ziren: umeena; handiena eta ezkonduena. Musika kioskoa. San Juanetan, gaueko 12:00ak arte dantzan. "Enbolauak" goizean izaten ziren. Zezenketa ondoren, musika. Udaletxe ostean erromeria; organotxoarekin musika egoten zen.</p>

8. Neskatan-mutiletan nola egiten zuten

- **Erref:** AB-141/010
- **Iraupena:** 0:01:46. **Hasi:** 00:18:23. **Bukatu:** 00:20:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea

Laburpena:

Neskatan-mutiletan. Bikoteak Estaziño kalean pasioan ibiltzen ziren negu sasoian; udan Untzagan.

9. Musika, dantza Eibarren

- **Erref:** AB-141/011
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:20:09. **Bukatu:** 00:21:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:

Musika, dantza. Maiatza-ekainean hasi eta Arrateak arte egiten ziren dantzaldiak. Kontzertua, Untzagako plazan egiten zen. Rialtoan eta Astelenan ere dantzaldiak egoten ziren. Aratusteetan, Astelena frontoian. Kanpotik jende asko etortzen zen Eibarrera.

10. Eibar kanpotarrentzat

- **Erref:** AB-141/012
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:21:19. **Bukatu:** 00:22:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Inguruko herriak eta auzoak

Laburpena:

Eibar kanpotarrentzat. Izen txarra zuen, baina etortzen ziren gehienak bertan gelditzen ziren bizi izaten. Bergara, Durango, etab. herri desberdinak ziren.

11. Hezkuntza Eibarren: eskolak; irakasleak

- **Erref:** AB-141/013
- **Iraupena:** 0:02:17. **Hasi:** 00:22:39. **Bukatu:** 00:24:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Hezkuntza Eibarren. Alhondigako eskola. Eraikuntza horretan umeen eskolak egoteaz gain, Telégrafo etxea ere bazegoen. Bertako eskoletan zeuden irakasleak: Doña Paca; Doña María eta Doña Polonia. Bidebarrietan, Guardia Zibilen koartela zegoen eraikuntzan, eskola bi zeuden beheko aldean. Udaletxean, Frontoi zaharrean ere eskolak zeuden. Askotan amari lagundu beharra zegoen eta eskolara joan ezinda geratzen ziren.</p>

12. Mojak Eibarren

- **Erref:** AB-141/014
- **Iraupena:** 0:00:51. **Hasi:** 00:24:56. **Bukatu:** 00:25:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak

Laburpena:

Mojak Eibarren. Aldatzeko mojak izan ziren Eibarrera etortzen lehenak. Mesedeetako mojak geroago etorritakoak dira. Ospitaleko mojak udaletxera joaten ziren ume txikiei klaseak ematera. Igande arratsaldetan, Aldatzera joaten ziren dotrinara.</p>

13. Euskalkiak; euskararen erabilera: berorika, hitanoa

- **Erref:** AB-141/018
- **Iraupena:** 0:03:21. **Hasi:** 00:30:25. **Bukatu:** 00:33:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua
- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Berorika

Laburpena:

Euskalkiak. Euskal Herri guztian ez da euskaraz berdin egiten. Eibarko euskara, bere ustez ona. Rosariok abadeei berorika ezin egin. Berori abadeei eta medikuei egiten zitzaien. Lagunartean ez zuten hitanorik erabiltzen.</p>

14. Umetako jolasak; neskak eta mutilak elkarrekin jolasean

- **Erref:** AB-141/021
- **Iraupena:** 0:07:24. **Hasi:** 00:43:44. **Bukatu:** 00:51:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

Umetako jolasak: txingor-gainean, sokasaltoan, poteka, diabolarekin. Afariketari, tortolasetan, kaniketari ere egiten zuten. Asko aldatu dira gauzak Rosarioren ustez. Txirikilarekin zelan egiten zen. "Txirrinbola". Neskek eta mutilek askotan batera jolasten zuten (sokasaltoan, poteka...). Orduan, gaur baino gehiago jolasten zela dio.

15. Umetan mendira aitarekin; lagunartean

- **Erref:** AB-141/024
- **Iraupena:** 0:04:45. **Hasi:** 00:52:55. **Bukatu:** 00:57:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Mendizaletasuna
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Umetan mendira joaten ziren aitarekin, Kalamuara. Orduan zelai ederrak zeuden. Oizera ere joaten ziren, Urkizutik irtenda. Pol-polera, mantzanilla batzera joaten ziren. Aita eta anaiak mendizale amorratuak ziren. Mantzanillatara bai, baina perretxikotara ez ziren joaten. Lagunei Eztiagara (Eztixara) joatea gustatzen zitzaien.

16. Lagunekin mendira, hondartzara

- **Erref:** AB-141/026
- **Iraupena:** 0:02:21. **Hasi:** 00:58:45. **Bukatu:** 01:01:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Mendizaletasuna
- Aisia » Mendia eta hondartza

Laburpena:

Lagunekin Eztiagara (Eztixara) joaten ziren meriendarekin. Debara joatea erabakitzen zutenean, bazkaria eramaten zuten. Egindako egun-pasa horien argazkiak ere baditu.

17. Arrate eguna: meza entzun eta erromerian dantza

- **Erref:** AB-141/028
- **Iraupena:** 0:02:41. **Hasi:** 01:01:39. **Bukatu:** 01:04:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

Laburpena:

<p>Arrate eguna. Goizean Arratera joaten ziren oinaz; han meza entzun eta erromerian dantza egiten zuten. Azitaindik igotzen ziren, Ama Birjinaren pausoetatik. Kanpotik ere jende asko joaten zen.</p>

18. Errebalgo komentua; pasealekua

- **Erref:** AB-141/030
- **Iraupena:** 0:00:46. **Hasi:** 01:05:14. **Bukatu:** 01:06:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eraikuntza erlijiosoak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:

<p>Errebalgo komentua oso ederra zen. Ortuak; pasealeku ederra. Trinkete tabernakoek mahaia kanpora ateratzen zituzten eguraldi ona hasten zenean.</p>

Transkripzioa

- Zelakua zan konbentua San Agustiñekua?
- Edarra. Baita Isasiko mojak be bai. Ooo... Isasiko monjak be eken edarra elixia.
- Zelakua zan?
- Haundixa, bai, edarra. "Concepcionistas".
- Eta ortua be haundixa eukiko zebe.
- Uooo! Ortura be urtetzen eben ta markesak be bai, markesak be hori danori ortua ekan ta.
- Eta e...
- Frutia edarra ta... Errebaleko mojak be bai, "Las Agustinas", oin Lekeittion daozenak. Pasialekua eban baina edarra ta Trinketekuak-eta orduan denporan mahaixak udan eukitzen zittuen.ipinita, kafiak hartzeko. Eta bankuak be bai [baeuazen] e.Baiña... Diferentia da konpletamente.

19. Hiletetako ohiturak

- **Erref:** AB-141/033
- **Iraupena:** 0:02:28. **Hasi:** 01:09:37. **Bukatu:** 01:12:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak

Laburpena:

Hiletetan elizakoak etxera eramaten zirela azaltzen du Rosariok. Abadea etxera joaten zen eta ordaindu egin behar izaten zitzaion meza emateko. "Mauka daka" esaten zitzaien elizkizunetara kapa eleganteekin joaten zirenei, dirudunak zirelako.

20. Morokila eta gaztaina erreak Gaztainerre egunean

- **Erref:** AB-141/034
- **Iraupena:** 0:01:58. **Hasi:** 01:12:05. **Bukatu:** 01:14:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Etxe barruko ospakizunak

Laburpena:

Gaztainerre eguna hasieran baserrietan ospatzen zen batez ere. Morokila eta gaztaina erreak jaten zituzten. Poliki-poliki, kalean ere ohitura hau zabaltzen hasi zela kontatzen du Rosariok.

21. Gabon-gaueko eta urteberri eguneko afari-bazkaria

- **Erref:** AB-141/035
- **Iraupena:** 0:02:52. **Hasi:** 01:14:03. **Bukatu:** 01:16:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Gabonak
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:

<p>Gabon-gauean jateko zer izaten zuten azaltzen du Rosariok: olio-aza, marraskiloak, baba zuriak, konpota eta batzuetan intxaur-saltsa jaten zuten. Urteberri egunean bildotsa jaten zuten. Amak gozoak ipintzen zituen marraskiloak, baina berak ez eta egiteari utzi dio.</p>

22. Aratusteetan gaixoentzat diru-eske

- **Erref:** AB-141/037
- **Iraupena:** 0:00:33. **Hasi:** 01:17:17. **Bukatu:** 01:17:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Inauteriak

Laburpena:

Aratusteetan, Don Poli abadearekin dantzaldia egiten zuten ospitalerako dirua biltzeko.

23. Umetako jolasak

- **Erref:** AB-141/039
- **Iraupena:** 0:03:43. **Hasi:** 01:19:15. **Bukatu:** 01:22:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Ume kantak

Laburpena:

Umetako jolasak azaltzen ditu Rosariok: "Don don beledon" zenbatzeko

abestia; afariketan; txingor-gainean nola jolasten zuten; zuhaitz gainetan (txitxirri-mitxirri....) jolasten.

24. Gabon kantak; eskean egiteko kantak; San Juan ereserkia

- **Erref:** AB-141/040
- **Iraupena:** 0:02:32. **Hasi:** 01:22:58. **Bukatu:** 01:25:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak
- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Gabon kantak

Laburpena:

<p>Gabonetako eta aratusteetako kantak abesten ditu Rosariok. Diru eskean joaten ziren umetan, koko-jantzita. San Juanetan ereserkia abesten zuten koroarekin eta bandarekin.</p>

25. Aste Santuan ura eta sua bedeinkatu

- **Erref:** AB-141/042
- **Iraupena:** 0:03:21. **Hasi:** 01:25:39. **Bukatu:** 01:29:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Aste Santua
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak

Laburpena:

Aste Santuan egiten ziren ohitura desberdinak azaltzen ditu Rosariok. Eguen Santu egunean, egurra eta ura bedeinkatzen ziren, "ixu eguna" izaten zen. Batzuek urte guztian gordetzen zuten ur-bedeinkatua.

26. Pregoilariak eta serenoak

- **Erref:** AB-141/043
- **Iraupena:** 0:02:02. **Hasi:** 01:29:00. **Bukatu:** 01:31:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Udal langileak

Laburpena:

Eibarko pregoilariak. Pregoian zer esaten edo kantatzen zen dio Rosariok: galdutako gauzak; udaletxeko erabakiak. Serenoak Rosario gaztea zenean izaten ziren.

27. Mikeleteak eta Guardia Zibilak

- **Erref:** AB-141/044
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 01:31:02. **Bukatu:** 01:33:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Polizia

Laburpena:

Mikeleteak, Guardia Zibilak eta alguazilak zertan lan egiten zuten kontatzen du Rosariok. Gehienak kanpotik etorritakoak izaten ziren. Berehala igartzen zen erregea Eibartik pasatu behar zenean, Guardia Zibilak egoten ziren bide bazterretan eta.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-11-20

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com